# Xedapen Orokorrak

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**

**3382**

AGINDUA, 2011ko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren «Telelaguntzako» datu-pertsonalen fitxategia sortu eta arautzeko dena.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20. artikuluak xedatzen duenaren arabera, Administrazio Publikoen titulartasuneko datu pertsonalei buruzko fitxategiak Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokor baten bidez baino ezin izango dira aldatu edo ezabatu.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legeak –Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa– 4. artikuluan ezartzen duenez, fitxategia datxekion saileko titularraren aginduz sortu, aldatu eta ezabatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko fitxategiak; era berean, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen aipamen guztiak hartu beharko ditu barne agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bestalde, 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuko 54. artikuluak xedatzen du zein eduki izan behar duen fitxategiak sortzen, aldatzen edo ezabatzen dituen xedapenak edo erabakiak.

Halaber, aipatutako 2/2004 Legearen 18. artikuluak Datuak Babesteko Erregistroa sortu zuen eta Lege horren aplikazio-eremuan barne hartutakoak joko dira bertan erregistratzeko fitxategitzat.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikuluak ezartzen duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Autonomoek Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinaraziko diote aldatzen edo ezabatzen diren datu pertsonaleko fitxategi guztien berri, Datuak Babesteko Erregistroan erregistra ditzaten, xedapena edo erabakia Datuak Babesteko Euskal Agentziaren zuzendariak emandako 2005eko ekainaren 21eko Ebazpenak (2005eko abuztuaren 31ko EHAA, 165. zk.) onartutako eredu normalizatuaren bitartez bidaliz.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**

**3382**

ORDEN de 30 de junio de 2011, de la Consejera de Empleo y Asuntos Sociales, por la que se crea y regula el fichero de datos de carácter personal de «Teleasistencia» del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

El artículo 20 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (LOPD) establece que la creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal de los que sean titulares las Administraciones Públicas sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el Boletín Oficial del Estado o diario oficial correspondiente.

La Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos determina en su artículo 4 que la creación, modificación y supresión de ficheros de la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará por orden del titular del Departamento al que esté adscrito el fichero, la cual deberá contener todas las menciones exigidas por la legislación en vigor, y será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por su parte, el artículo 54 del Real Decreto 1720/2007, de 21 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 15/1999, establece cuál debe ser el contenido de la disposición o acuerdo de creación, modificación o supresión de ficheros.

Además de lo anterior, el artículo 18 de la ya citada Ley 2/2004 crea el Registro de Protección de Datos y establece que serán objeto de inscripción en el mismo los ficheros comprendidos dentro del ámbito de aplicación de dicha Ley.

El artículo 2 del Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 2/2004, establece que los entes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco notificarán a la Agencia Vasca de Protección de Datos toda creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, para su inscripción en el Registro de Protección de Datos, mediante el traslado de la disposición o acuerdo a través del modelo normalizado aprobado por Resolución de 21 de julio de 2005, del Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos (BOPV n.º 165, de 31 de agosto de 2005).

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 40.3 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzaren barnean hartutako prestazioak eta zerbitzuak betetzea Eusko Jaurlaritzaren beraren eskumena da, eta horien artean dago telelaguntza-zerbitzua, zeina aipatutako legeko 22. artikuluko 1.6 puntuan arautzen baita.

Beraz, Datu Pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea eta horiek garatzen dituzten arauak betetzeko, honakoa

XEDATU DUT:

***1. artikulua.–*** Helburua.

Agindu honen xedea Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatuko duen «Telelaguntzako» datu pertsonalen fitxategia sortzea da, aginduaren eranskinean jasotzen den moduan.

***2. artikulua.–*** Datu-lagapena.

1.– Agindu honen eranskinean aurreikusten diren datu-lagapenak baztertu gabe, bertan jasotzen diren datuak beste administrazio publikoetako batzuei eskuratu ahal izango zaizkie ordenamendu juridikoak euren esku jartzen dituen zereginak betetzeko, antzeko eskumenei eta gaiei buruzkoak badira.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste Administrazio Publikoetako organoei eta estatistika-zerbitzuei laga ahal izango zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean xedatutakoari jarraiki.

***3. artikulua.–*** Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak fitxategiak sortzen diren helbururako, eta datu pertsonalen segurtasuna zainduz, erabili daitezen bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, betiere haiek aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatu eta baliatzea saihesteko moduan; Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aintzat harturiko bermeak, betebeharrak eta eskubideak, eta haien garapen-arauak, gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak ere hartu beharko dituzte.

***4. artikulua.–*** Datuak tratatzeko zerbitzuak ematea.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren kontura datu pertsonalak tratatzeko zerbitzuak ematen dituztenek aginduriko eginkizunak beteko dituzte tratamen-

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, en su artículo 40.3 establece que es competencia del Gobierno Vasco la provisión de las prestaciones y servicios incluidos en la acción directa del mismo, entre los cuales se encuentra el servicio de Teleasistencia, regulado en el apartado 1.6 del artículo 22 de la ley anteriormente mencionada.

Por tanto, a fin de dar cumplimiento a las anteriormente citadas Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal y Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, así como a la normativa de desarrollo de ambas,

DISPONGO:

***Artículo 1.–*** Objeto.

La presente Orden tiene por objeto la creación del fichero de datos de carácter personal denominado «Teleasistencia» gestionado por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, en los términos recogidos en el anexo a la misma.

***Artículo 2.–*** Cesiones de datos.

1.– Sin perjuicio de las cesiones de datos que se prevén en el anexo a la presente Orden, los datos incluidos en el mismo podrán ser comunicados a otras administraciones públicas para el cumplimiento de las funciones que les encomienda el ordenamiento jurídico para el ejercicio de competencias idénticas o que versen sobre las mismas materias.

2.– Asimismo, podrán ser cedidos a los órganos y servicios de estadística de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de otras Administraciones Públicas, al amparo de lo dispuesto en la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en la Ley 12/1989, de 9 de mayo, de la Función Estadística Pública.

***Artículo 3.–*** Medidas de seguridad y gestión.

La Dirección de Servicios Sociales adoptará las medidas necesarias que garanticen el uso del fichero para la finalidad para la que se crea y la seguridad de los datos de carácter personal, y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, así como las conducentes a hacer efectivas las garantías, obligaciones y derechos reconocidos en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter personal y en sus normas de desarrollo.

***Artículo 4.–*** Prestación de servicios de tratamiento de datos.

Quienes, por cuenta del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, presten servicios de tratamiento de datos de carácter personal realizarán las funciones

duaren arduradunaren argibideei jarraiki, eta horrela jasoko da horretarako egiten den kontratuan; ezin izango dira bestelako xederako aplikatu edo erabili, ezta beste inori jakinarazi ere –ezta datuak gordetzeko bada ere–, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan xedaturikoari jarraiki.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Gizarte Gaietako Zuzendaritzak erabaki honen kopia bat igorriko dio Datuak Babesteko Euskal Agentziari, xedapen honen eranskinean bilduriko datu pertsonalen fitxategia –Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren datu pertsonalen fitxategia, hain zuzen ere– Erregistroan inskribatu dezan.

***Bigarrena***.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 30a.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

ERANSKINA

Fitxategia sortzea

Datu pertsonalak jasotzen dituen honako fitxategia sortu da, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatua:

1. – Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza:

1.1. – Telelaguntza:

a) Aurreikusiriko helburua eta erabilera:

Telelaguntza-zerbitzuaren kudeaketa.

b) Eraginpeko pertsonak edo taldeak:

Telelaguntza Zerbitzuaren erabiltzaileak eta haien ordezkariak; hala badagokio, familia-unitatea osatzen duten pertsonak eta larrialdi-egoeretan harremanetarako proposatu direnak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

Interesduna edo haren legezko ordezkaria, interesduna ez diren beste pertsona fisiko batzuk, beste administrazio batzuk; inkestak / elkarrizketak, formularioak, telematika-transmisioa; paperean, euskarri informatiko / magnetikoan eta telematika edo telefono bidez aurkeztutako dokumentazioa.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN, helbidea (postala, elektronikoa), telefonoa, sinadura / hatz-marka, Gizarte Segurantzako zenbakia.

encomendadas conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento y así se hará constar en el contrato que a tal fin se realice, no pudiendo aplicarlos o utilizarlos con fin distinto, ni comunicarlos, ni siquiera para su conservación, a otra personas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La Dirección de Servicios Sociales dará traslado a la Agencia Vasca de Protección de Datos de una copia de esta Orden, para que proceda a la inscripción en el Registro de Protección de Datos del fichero de datos de carácter personal del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, contenido en el anexo a la presente Disposición.

***Segunda***.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de junio de 2011.

La Consejera de Empleo y Asuntos Sociales,
MARÍA GEMMA ARÁNZAZU ZABALETA ARETA.

ANEXO

Creación de fichero

Se crea el siguiente fichero con datos de carácter personal gestionado por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales:

1.– Dirección de Servicios Sociales:

1.1.– Teleasistencia:

a) Finalidad y usos previstos:

Gestión del servicio de Teleasistencia.

b) Personas o colectivos afectados:

Personas usuarias del Servicio de Teleasistencia y sus representantes; en su caso, personas integrantes de su unidad familiar y personas de contacto indicadas para situaciones de emergencia.

c) Procedencia y procedimiento de recogida de los datos:

De la persona interesada o su representante legal, de otras personas físicas distintas a la interesada, de otras Administraciones, mediante encuestas/entrevistas, formularios, transmisión telemática y documentación aportada en soporte papel, informático/magnético, y vías telemática y telefónica.

d) Estructura básica del fichero:

Datos identificativos: nombre y apellidos, DNI, dirección (postal, electrónica), teléfono, firma / huella, n.º Seguridad Social.

Ezaugarri pertsonalei buruzko datuak: familiari buruzko datuak, jaiotze-data, adina, sexua, nazionalitatea, hizkuntzak.

Gizarte-arloko egoerari buruzko datuak: etxebizitzari eta bizimoduari buruzko datuak.

Enpleguaren xehetasun-datuak: lanpostua, gizarte-langileak eta bestelako profesionalak.

Datu ekonomiko finantzarioak: diru-sarrerak/errentak eta banku-datuak.

Bereziki babesturiko datuak: osasunari buruzko datuak.

e) Datu-lagapenak:

Babes zibilaren eta larrialdien gaineko eskumena duen saila.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua.

Gizarte Zerbitzuen arloko eskumenak dituzten administrazioak (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak barne).

Foru Aldundiak eta mendekotasunaren eta desgaitasunaren arloko eskumena duten beste organoak.

f) Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Gizarte Gaietako Zuzendaritza.

g) Datuak Eskuratzeko, Zuzentzeko, Baliogabetzeko eta horien Aurka egiteko eskubideak honako zerbitzu honetan gauzatu daitezke:

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Gizarte Gaietako Sailburuordetza

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Eska daitekeen maila, segurtasun-neurriei dagokienez: goi-maila.

Datos de características personales: datos de familia, fecha de nacimiento, edad, sexo, nacionalidad, lenguas.

Datos de circunstancias sociales: datos de vivienda, estilo de vida.

Datos de detalle de empleo: Puesto de Trabajo, Trabajadores Sociales y otros profesionales

Datos de carácter económico financiero: Ingresos/rentas y datos bancarios.

Datos especialmente protegidos: datos de salud.

e) Cesiones de datos:

Departamento competente en materia de protección civil y emergencias.

Osakidetza–Servicio Vasco de Salud.

Administraciones competentes en materia de Servicios Sociales (incluidos Servicios Sociales de Base).

Diputaciones Forales y otros órganos competentes en materia de dependencia y discapacidad.

f) Órgano responsable del fichero:

Dirección de Servicios Sociales de la Viceconsejería de Asuntos Sociales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

g) Servicio donde se pueden ejercitar los derechos de Acceso, Rectificación, Cancelación y Oposición:

Departamento de Empleo y Asuntos Sociales

Viceconsejería de Asuntos Sociales

Dirección de Servicios Sociales

C/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

h) Nivel exigible respecto a las medidas de seguridad: nivel alto.